



UKBERRI.NET / CC

Urratsez urrats

Xabier Letona

@xletona

Oso ausarta da EPPKren erabakia. Lehenbiziz bere bizitzan, badaki aurrerantzean bera izango dela bere buruaren guztiz jabe, ez duela ETArekin partekatu behar-ko ezer, molde batez edo bestez ETA desagertzera doalako eta presoek arduratu beharko dutelako beren etorkizunaz, beti ere euskal gizartearen laguntzarekin.

Hori da deigarri egiten den beste puntu nagusietakoa, egin beharreko bidea gizarteari begira egiteko borondate irmoa. EPPK-k badaki bere helburuak bete daitezela nonbaiten baldin bada sostengurik, hori euskal gizartearen bilatu behar dela. Presoen esparru sozio-politikoak beti eman die babes politiko edota humanoa eta orain, espetze politika aldaketaren aldarrikapenean, euskal gizarte ia osoaren sostengua dute. Euskal Herriaren PP, UPN eta gutxi gehiago dira aldaketa ezaren gotorlekuan. Eta bai, sostengu hori orain arte ez da nahikoa izan espetze politika aldarazteko, baina beti izan da lagungarria espetxean eusteko, senideak laguntzeko edota Madrilgo agintarien ankerkeria salatzeke. Ez da gutxi.

Urratsik garrantzitsuena 2013an iragarritakoaren garapena da: EPPK-ko kide bakoitzak bere bide propioa egin ahal izango duela Espainiako legediak eskaintzen dituen zirrikitu guztiak baliatzeko. Askatasuna helburu nagusi, Euskal Herri-
ra gerturatzea, espetze batean edo gehia-

gotan biltzea, gaixoak etxeratzea, baimean izatea... Denak balio du kalera bidean. Denak, salbu eta damutzea eta espainiar agintearekin kolaboratzea. Asko laburbilduta, hori dira EPPKren politika aldaketaren gakoak. Eta bide horretan kontraesan asko izan daitezkeela jakitun –adibidez, zer da damutzea? Nork jartzen ditu marrak?–, malgutasun handiz jokatu beharko dutela adierazten dute.

Dudarik gabe, bazen ordua! EPPK-k ikuspegi bat izan du orain arte eta EPPKtik kanpo izan diren beste askok beren bidea egin dute edo egiten ari dira: batzuek kalera ateratzeko eta beste batzuek ezker abertzalearen bide berria salatzeke. Barruan dagoenak hartu behar ditu dagozkion erabakiak, hori da kanpotik begiratuta begirunezko araurik oinarritzakoa. Ikuspegi horretatik, pena da hau 2013an erabaki zela eta 2017ra arte ez dela bide bihurtu.

Konponbideari begira, EPPK-k batez ere etorkizunari begiratu dio, logikoa den bezala. Baina iraganak zama sekulakoa utzi du kasu honetan ere, eta komeni da kontuan hartzea, euskal gizartearen erantzukizunaren tamaina ulertzeko: ETA-Madrilgo Gobernua negoziazio saio bakoitzean presoen eta errepresaliatu guztien egoera bideratzeko hainbat aukera galdu ziren, eta enbor haien mozketak ere badira egungo ezpal hauek.

Edozein modutan, guztiak etxean izan arteko bidean, garrantzitsuena da orain baldintza hobekak direla atzo baino presoen egoera urratsez urrats hobetu ahal izateko.

EKONOMIAREN TALAIAN

Diru publikoa kudeatu eta kontrolatzea



Juan Mari Arregi

Zenbait euskal enpresa egoera larrian dago (CNA-Fagor, Xey, GE, CEL, La Naval...) eta ehunka lanpostu desagertzeko arriskuan. Horrek prentsako azal eta izenburuak bereganatu ditu. Enpresa horietako askotan Eusko Jaurlaritzak dirua jarri du finantzaziorako, eta akziodun ere bada. Jaurlaritzako arduradunen jarrerak harridura sortu du, batez ere Industria sailburu Arantxa Tapiarenak. Albiste txar zaparradaren aurrean eta enpresen itxiera iragarpenak etengabe datozenean, kexu da ez zaiolako horretaz informatu, ordainketa-eteteen berri prentsatik jakin duela dio eta zenbait inbertitzailek ihes egin dutela.

Nola da posible egoera hori, zenbait kasutan gobernu bera baldin bada krisian dauden enpresa horien jabea? Arrazoizko azalpen bakarra da Jaurlaritzak enpresa jakin batzuk finantzatu dituela, akzionista izatera igaro dela, fiskalitatean mesedeak egin dizkiela zergak gutxituz eta ez duela haien kudeaketa gertutik jarraitu. Era berean, badirudi enpresa horietan diru publikoa jarri duela benetako bideragarritasun plan baten bermerik izan gabe eta ez diela euskal jendartearen zerbitzura gertzeko konpromisorik exijitu.

Egiazko industria politika batek, sektore estrategikoak momentu oro ongi aukeratzeaz gain, inbertitu den diru publikoaren kontrol zorrotza behar du. Gestioa etengabe gainbegiratu behar da, desagertzeko edo uzteko unea iristen denean, botere publikoek ez dezaten esan ez direla enteratu edo "inbertitzaileek ihes egin" dutela, aipatu dugun kasuren batean gertatu den bezala. Tapia sailburuak hobe luke hainbeste propaganda egin beharrean gehiago arduratuko balitz industrian erabiltzen den diru publikoa kontrolatu eta gestionatzeaz.